



30 URTETIK BEHERAKO LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA OKUPAZIONALEKO PROGRAMA, ETXEBIZITZA-ERREFORMA ETA ERAIKUNTZA ARLOKO HAINBAT ESPEZIALITATETARA BIDERATUA

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Programa honetan langabezian dauden 12-15 bat gazte hartzea.
- Parte hartuko duen taldea hautatu eta harrera-fase labur bat igaro ondoren, gazte bakoitzari prestakuntza ematea espezialitate batean, haren interesak eta gaitasunak kontuan hartuz.
- Espezialitate batean lau hilabetez prestakuntza egin ondoren, lan-kontratu bat lortzea ikastaroa amaitzean.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren erroldatuta egotea.
- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Langabezian egotea.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Programan parte hartzeko eskaerak PEGORAn aurkeztu behar dira (Herritarren Zerbitzurako Bulegoa); 2018ko abuztuaren 27tik irailaren 7ra bitartean (egun horiek biok barne). Hau da aurkeztu behar den dokumentazioa:

- a) 30 urtetik beherako langabeentzako prestakuntza okupazionalako programan, etxebizitza-erreforma eta eraikuntza alorreko espezialitateetan parte hartzeko eskaera, behar bezala beteta (PEGORAn eskuragarria eta udal webgunean, www.eibar.eus).
- b) Eskatzailearen NANaren edo horren baliokidea den beste dokumenturen baten fotokopia.
- c) LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- d) Lan-bizitza eguneratua edo curriculum vitae eguneratua.

PROGRAMAREN GARAPENA

Lekua: Azitaingo Lanbide Heziketako Zentroa

Programaren iraupena: 270 ordu.

Edukiak:

- ESTALDURAK ETA IGELTSERO-LANAK: Luzituak, pintura, pladurra, trenkadak eta alikatatuak.
- ITURGINTZA: Zuinketa eta hoditeria prestatzea, hodiak manipulatzeko eta lotzea. Sanitarioak eta txorrotak instalatzea. Klimatizazioa
- ARGINDARRA. Tentsio baxuko instalazio elektrikoak eta automatismoak.
- AROTZERIA: Ateak, tarimak, zoru laminatuak eta hainbat altzari instalatzea.
- LAP: Lan- eta ingurumen-arriskuak prebenitzea.

EGUTEGIA

Hasiera-eguna: 2018ko irailaren 11.

Amaiera-eguna: 2018ko abenduaren 21a.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 18:00etara.